

LANBIDE HEZIKETA. 2001-2002 ikasturtean aurreko urtean baino 1.115 ikasle gehiago matrikulatu dira EAEn

Derrigorrezko hezkuntzaren ostean ikasleen erdiak LH egiten hasten dira

Hezkuntzaren kalitateari eta prestigioari eustea da Jaurlaritzaren asmoa

Asier Iturriagaetxebarria | BILBO

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitzen duten ikasleen erdiak Lanbide Heziketa aukeratzeko euren formazioa osatzeko. Orain dela lau urte, unibertsitatea eta lan hezkuntzaren artean aukeratu behar zuten ikasleen laurdenak bakarrik egiten zuten Lanbide Heziketaren alde, Anjeles Iztueta Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak azaldu zuenez.

Horrez gain, 2001-2002 ikasturterako matrikulazio kopuruak «nabarmen» egin duela gora esan zuen Iztuetak. Izan ere, iaz baino 1.115 ikasle gehiago ari da Lanbide Heziketa ikasten, aurreko urtean baino %3,82 gehiago. Hau da, gaur egun 30.223 gazte ari dira hiru probintzia horietan Lanbide Heziketan. Horietatik %38 emakumezkoak dira. Bestalde, herrialdeko hartuta, Lanbide Heziketa zentroetako matrikulazio kopurua Bizkaian igo da gehien, %7 hain zuzen. Araban eta Gipuzkoan ere ikasle gehiago daude, baina ehunekoak ez da horrenbeste hazi.

Aurreko bi urteetan matrikulazio kopuruak apur bat behera



EGUNKARIA
Ikasle batzuk, Usurbilgo Lanbide Heziketako Eskolan.

egin ostean, ikasturte honetan gazteek berriro egin dute Lanbide Heziketaren aldeko apustua. «Kalitatezko hezkuntza eskaintzen delako da hori, eta gizartean prestigioa daukalako. Gaur egun, Lanbide Heziketako modulo bat ikastea edo unibertsitatean sartzeari pare-parean daude, prestigioaren aldetik begiratuta», adierazi zuen Hezkuntza sailburuak.

Lanbide Heziketan formazioa jasotakoek lan munduan sartzeko aukera handia izateak ere matrikulazioen hazkundean eragina duela azpimarratu zuen. «Ikasleak lana topatzeko

aukera handiak ikusten ditu, eta hori gertatzen da ikastetxeen eta inguruko enpresen arteko harremana estua delako».

Eraikuntzako ikasleen %100ek lana topatzen dute

Gaur egun 21 arloko ziklotako ikasketak eskaintzen dira Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko zentroetan. Fabrikazio mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika, administrazioa eta informatika dira ikasle gehien hartzen dituztenak. Itsas eta arrantza jarduerak eta ehungintza, jantzigintza eta larrugintza ikastaroek, berriz, ez dute arrakasta handirik.

Lan munduan sartzeko aukera handienak eskaintzen dituen zikloa eraikuntza dela esan zuen Iztuetak, ikasle guzti-guztiek topatzen baitute beharra. Automozioan, fabrikazio mekanikoan eta elektronika eta elektrizitatea espezialitateetan ibilitako ikasleen gehiengoak ere lana aurkitzen du bere formazioa amaitu ostean. Desoreka handiena administrazio zikloan dagoela azpimarratu zuen Iztuetak. Gazte askok ematen du izena ziklo horretan —batez ere emakumeak—, baina lan merkatuak ez du administrariarik eskatzen.

Lanbide Heziketaren egoera «aspaldiko onena» dela esan zuen Iztuetak, eta etorkizunean horrela izaten jarraitzeko ahalgina egin behar duela Hezkuntza Sailak. «Gure erronketa bat da Lanbide Heziketarako kanpoan zein barruan duen dinamismoa, kalitatea eta prestigio soziala iraunaraztea». Horretarako, zentroetan eskaintzen ari diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak mantendu egin behar direla uste du Hezkuntza sailburuak. «Iaz baliabide teknikoetarako aurrekontua hazi egin zen, eta aurten gehiago haziko da».

ESANAK

ANJELES IZTUETA
(EAEko Hezkuntza sailburua)

«LHk hemen zein kanpoan daukan prestigioari eta kalitateari eustea da gure erronketako bat»

«Baliabide teknologikoetarako aurrekontua hazi egingo da, hortxe dagoelako gakoa»

«Euskaraz ikasten dutenen kopurua hazi egin da azken urteetan, baina arlo horretan asko dago egiteko»

«Orain arte gizonek egiten dituzten beharrak betetzera animatu behar dute emakumeek»

ERRONKA NAGUSIAK

EUSKARA

Gero eta gehiago dira euskaraz ikasten dutenak

Lanbide Heziketan euskaraz ikasten dutenen kopuruak gora egin du azken urteetan. Gaur egun, %18k bakarrik ikasten dute euskaraz Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian. Hala ere, orain dela hiru urte %5 baino ez ziren. Hau da, hiru urtean hirukoiztu egin da Lanbide Heziketan euskaraz ikasten dutenen kopurua. Arabako kasua da larriena, ikasleen %1,5ek bakarrik jasotzen baitituzte eskolak euskaraz. Gipuzkoan, berriz, kopurua askoz altuagoa da, eta Lanbide

Heziketan dabilzanen %35ek euskaraz ikasten dute. Bizkaian %11 dira heziketa zikloak euskaraz jasotzen dituzten ikasleak. Arabako kasuan, gainera, ikastetxe pribatuak ez dago euskaraz ikasteko aukerarik, eta sare publikoan orain dela gutxi hasi dira eskolak euskaraz ematen, Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuak azaldu zuenez.

Iztueta pozik agertu zen euskaraz ikasten dutenen kopuruak nabarmen egin duela gora azkenengo urteetan. Hala ere, oraindik lan handia dagoela egiteke aitortu zuen. «Argi dago goranzko joera nabarmena dela, baina asko dago egiteko oraindik. Hain zuzen, horixe da daukagun erronka nagusietako bat, euskaraz ikasten dutenen kopurua haztea».

EMAKUMEA

Andrak Lanbide Heziketara erakartzeko saiakera

Anjeles Iztuetak aipatu zuenez, gero eta gehiago dira Lanbide Heziketako zikloren bat egiten duten emakumeak. 2001-2002 ikasturtean ikasleen %38 dira andreak. Hala ere, kopuru hori hazi egin behar dela uste du Hezkuntza sailburuak, eta horretan Eusko Jaurlaritzak ahalgin handia egingo duela azpimarratu zuen.

Iztuetak adierazi zuenez, «beste garai bateko klitxeak» jarraitzen dituzte oraindik emakume askok. Horrela,

administrazio zikloko ikastaroak egiten dituzte askok eta askok, nahiz eta horixe izan lan merkatuan sartzeko aukera gutxien eskaintzen duen zikloa.

«Emakumei aurreiritziak kendu egin behar zaizkie, eta animatu betidanik gizonetakoekin egin dituzten lanak betetzera. Horretan ahalgin handia egin behar dugu», azpimarratu zuen Iztuetak. Gaur egun eraikuntza, automozioa eta elektronika eta elektrizitatea zikloak dira lan merkatuan arrakasta handiena daukatena, baina horretan ia ez dago andrerik. «Emakumeek konturatu egin behar dute gaur egun eskaintzen diren baliabide teknologikoekin gizonen bezala egin dezaketela behar hori, ez daukatela arazorik zertan izan», gehitu zuen.